

FAMILIA UGARIEN ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGAREN 2019. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/04-19

UDAL AREA-SAILA- ERAKUNDEA:	ERRENTA SAILA	
INSTRUKTOREA:	Ekonomia eta Errenta teknikaria	
BALORAZIO BATZORDEA:	Ogasun batzordean ordezkariak duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana (4) + Ekonomia teknikaria	
DIRU-LAGUNTZA ATALA:	Ebazpena egiten duen organoa: Tokiko Gobernu Batzarra	
KODEA:	2019.urtean familia ugariaren titulua dutenentzat Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordaintzeko.	
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU- KOPURUA:	Ekonomia diru-laguntza 2019 4905,66€ (00800-15230-4800401 partidan: Ekonomia diru-laguntza)	
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIREN HELBURU ETA ONDORIOAK	Familia ugari batek ohiko etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordaintzeko finantziario laguntza edukitzea.	
EPEA: Hasi: Amaitu: Zuritzeko unea: (aurretiko zuriketa edo gerokoa)	Urriaren 1etik abenduaren 10era Bermeo Udaleko erregistro orokorrean, Berhaz bulegoan. Ertzilla kalea 6-8. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak ez betetzea eta eskariak epean kanpo aurkeztea nahiko izango da ez onartzeko. Egindako deklarazioak benetako egoerekin bat ez izanez sortutako iruzurra, Tributu Iruzur bezala kalifikatuko da.	
BALORAZIO ZEHATZAK:	IRIZPIDE	<ol style="list-style-type: none"> 1- Familia ugariko titulua edukitzea zerga sortzen den egunean, hau da 2019ko urtarrilaren 1ean. 2- Ohiko bizitza egiten den etxea Bermeon izatea. 3- Familia unitatearen edozein eratako gehienezko errenta estandarizatua 20.000,00€-koa edo gutxiagokoa izatea. 4- Diru-laguntza eskatzen den egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko du puntu hau. 5- 2019ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordainduta edukitzea.



ESKATZAILEAK: Onuradun motak: Enpresa handia, jarduera ekonomikorik ez duen pertsona fisikoa, jarduera ekonomikorik ez duen pertsona juridikoa edo ETE eta jarduera ekonomikoa garatzen duen pertsona fisikoa.	Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren subjektu pasiboak, diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak.
DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA	Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	<p>Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra.</p> <p>Diru-laguntza eskaria, Udal eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren. Horretaz gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Foru Aldundiaren familia ugariak emandako tituluaren fotokopia konpultsatua. • 2019ko urtarrilaren 1eko familiaren erroldaren ziurtagiria. • Aurreko bi urteko errenta aitopenenaren fotokopia konpultsatua eta han ez diren agertzen pentsio edo bestelako diru-sarreraren ziurtagiria. • 2019ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren ordainketaren justifikazioa. Ordaindutako errezioboaren fotokopia konpultsatua. <p>Errenta estandarizatua zehazteko Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko Erkidegoko 154/2012 Dekretuan jasotako kontzeptuak eta koefizienteak aplikatuko dira.</p> <p>Akatsak zuzentzeko epea: Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak hamar (10) egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita.</p> <p>Diru-laguntzaren ordainketa: Diru-laguntza ez da ordainduko eskatzaileak beste diru-laguntzaren bat justifikatu barik badauka eta justifikatzeko epea amaituta badago.</p> <p>Aurrekoetan jasotako diru-laguntza baten diru-kopurua atzera itzultzeko eskatuta badago eta itzuli barik, orduan ere ez zaio ordainduko.</p> <p>Beste kasu guztietan ordainketa onartuta agertzen den datatik hilabeteko barruko epean ordainduko da.</p> <p>Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak: Oinarri berezi hauetako arauak</p>



	betetzea.
PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK	<p>Programaren gehienezkoa diru-laguntza: 2019ko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren ordainketaren %50 eskatzaile bakoitzeko, eta guztira gehienez 6.000,00€-ko aurrekontua dago deialdi honetarako diru-laguntzetarako.</p> <p>Diru-laguntzaren bateragarritasuna: Diru-laguntza hau beste motatako diru-laguntza batzuekin bateragarria da.</p>
DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA	Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuotaren %50.
JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK	Eskatzaile kopurua eta diru-laguntzaren ordainketa data.
HONEKIN LOTUTAKO AGIRIAK:	
Genero-eragina: Kontrakoa, bat ere ez edo aldekoa	Batere ez
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ	<p><i>Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzkoa.</i></p> <p>EZ</p>

